



2024KO EKITALDIAREN MEMORIA

1. ENPRESAREN JARDUERA

NATURGOLF SA (lehen TOURMONTANA SA) 1993ko azaroaren 19an eratu zen. Hau da sozietatearen helbidea: Arriba kalea, z/g, Urturi, Araba.

Kapital Sozietateei buruzko Legeak arautzen du sozietatea; haren testu bategina uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen.

Honako hau du xede sozietateak: batetik, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, kirolaren eta turismoaren inguruko jarduerak sustatzea, garatzea eta gauzatzea; bestetik, naturagune babestuetan, natura ingurunearekin zerikusia duten jarduerak kudeatzea (betiere, aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituzten ekimenak sustatuz, Arabako Lurralde Historikoko gizartea eta ekonomia garatzen eta hobetzen lagunduko duten jarduerak).

Sozietatearen xede horren barruan, besteak beste, honako jarduera hauek daude:

- a) Enpresa ekimenak sustatzea eta garatzea, batez ere era guztietako kirol instalazioak eraikitzeari eta ustiatzeari dagozkionak, ordainaren bidez nahiz ordainik gabe.
- b) Lehen adierazitako jarduerak egiteko beharrezkoak diren tresna eta izapide mota guztiak kudeatzea.
- c) Aipatutako jardueretarako eta ekimenetarako gaur egun dauden edo etorkizunean sortuko diren hainbat laguntza mota, dirulaguntza edota kreditu berezi zuzenean nahiz zeharka bideratzea eta kudeatzea.
- d) Naturagune babestuak zaintzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea.
- e) Arabako Lurralde Historikoko landa garapenari lotutako proiektuetan enplegua sustatzea.
- f) Naturagune babestuei buruzko liburuak, liburuxkak eta zabalkunderako materiala argitaratu eta saltzea.

Egun, haren jarduera nagusia da Izki-Golf esparrua ustiatzea, alegia, Urturiko golf zelaia.

2013ko martxoan amaitu egin zen Lagrango golf zelaiaren jarduera. Gainera, 2014ko maiatzaren 7an, Lagrango Udalak eskatu zuen itzul zekizkiola bere garaian Naturgolf SAri laga zizkion lursailak, eta 2016ko ekitaldian itzuli ziren haiek.

Sozietatearen diru funtzionala euroa da.



2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi fidela

Honekin batera doazen 2024ko ekitaldiko urteko kontuak sozietatearen 2024ko abenduaren 31ra arteko kontabilitate erregistroetatik abiatuta egin dituzte administratzaileek. Kontabilitateko Plan Orokorra onesten duen 1514/2007 Errege Dekretuan jasotako kontabilitate printzipioak eta balioespen irizpideak, horretan abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuaren bidez egindako aldaketak eta kontabilitate gaietan indarrean dauden gainerako lege xedapenak aplikatu dira kontuotan, eta ondarearen, finantza egoeraren eta sozietatearen emaitzen irudi zehatza erakusten dute, bai eta ondare garbian egindako aldaketena ere.

Ez dago arrazoi berezirik irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrek onetsi beharko ditu honekin batera doazen urteko kontuak, eta uste dugu aldaketarik gabe onetsiko dituela. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2024ko maiatzaren 23an onetsi zituen ohiko batzar orokor eta unibertsalak.

Sozietatea ez dago legez behartuta 2023 eta 2024ko ekitaldietako urteko kontuak ikuskatzera, baina ikuskatu egin dira bi ekitaldi horietako kontuak, Arabako Foru Aldundiak eskatuta.

2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu Sozietateak bere finantza egoerak; izan ere, ez da egon hurrengo ekitaldiko aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Sozietateak galera jarraituak izan ditu eta bere jarraitutasuna akziodun nagusiaren (Arabako Foru Aldundia) finantza babesaren menpe dago, bera izan baita historikoki beharrezko ekarpenak egin dituen.

Urteko kontuak prestatzeko, Zuzendaritzak kontabilitate zenbatespen adierazgarriak, iritziak, estimazioak eta hipotesiak egin behar ditu, hartutako kontabilitate politiketan eta haiekin lotutako aktiboen, pasiboen, sarreraren, gastuen eta banakapenen zenbatekoan eragina izan dezaketenak. Zenbatespen horiek, batez ere, aktibo material eta ukiezinen bizitza baliagarriari buruzkoak dira (5. eta 6. oharra).

2.3. Informazioaren alderaketa

Balantzearen, galera eta irabazien kontuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoeraren, eskudiru fluxuen egoeraren eta memoriaren partidak aurkeztu dira; baina horiekin batera, eta erkatze aldera, 2024ko ekitaldiko kopuruak eta aurreko ekitaldikoak aurkeztu dira. Kopuru horiek 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitateko Plan Orokorra aplikatuz atera dira.

Bi ekitaldietako partidak alderagarriak dira.

53/2013 eta 8/2014 foru dekretuen bidez onetsitako ereduaren arabera aurkeztu dira urteko kontuak.



2.4. Partida batean baino gehiagotan jasotako elementuak

Ez dira aurkeztu balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementuak.

2.5. Aldaketak kontabilitate irizpideetan

2024ko ekitaldian zehar, ez da aldaketarik izan garrantzizko kontabilitate irizpideetan 2023ko ekitaldian aplikatu zirenekin alderatuz gero.

2.6. Hutsen zuzenketa

Honekin batera doazen urteko kontuak egitean, ez da antzeman huts nabarmenik, 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoen berradierazpenik ekarri duenik.

2.7. Garrantzi erlatiboa

Finantza egoeren edo beste gai batzuen gaineko partiden memoria honetan banakatu beharreko informazioa zehaztean, sozietateak 2024ko ekitaldiko urteko kontuei lotutako garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitateko Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera.

3. EMAITZEN BANAKETA

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorrean ekitaldiko emaitzen banaketa hau onesteko proposatuko du:

Banaketa oinarria	2024ko ekitaldia
Ekitaldiko emaitza (galerak)	(495.610,38)
GUZTIRA	(495.610,38)

Aplikazioa	2024ko ekitaldia
Bazkideen ekarpenak	486.510,21
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	9.100,17
GUZTIRA	495.610,38

4. BALORAZIO ARAUAK

Urteko kontuak formulatzean aplikatu diren kontabilitateko irizpide garrantzitsuenak jarraian deskribatzen diren hauek dira:

a) Ibilgetu ukiezina

Aktibo ukiezinak bizitza baliagarri mugatuko aktiboak dira.

Partida honetako zenbateko nagusia Patente eta Marken eta Aplikazio Informatikoen kontzeptuei dagokie.

Eskuratze kostuan edo ekoizte kostuan baloratzen dira eta kalkulatu zaien bizitza baliagarriaren arabera sistematikoki amortizatzen dira. Bai marketarako, bai aplikazio informatikoetarako, bost urteko bizitza baliagarria aurreikusten da.

Ez dago bizitza baliagarria modu fidagarrian ezarri ezin zaien ibilgetu ukiezinik.



Bizitza baliagarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera-irabazien kontura kargatzen dira zuzenean, sortu diren ekitaldian.

Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. "Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze aztarnarik dagoen aztertzen da; eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio zuzenketak egiten dira. Azken horiek ekitaldiko emaitzen kontura egingo dira."

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialari dagozkion ondasunak eskuratze kostuaren arabera baloratzen dira.

Ibilgetu materialaren amortizazioa metodo linealaren bidez kalkulatzen da sistematikoki, ondasunen bizitza baliagarriaren arabera:

ENTITATEA	Bizitza baliagarriko urteak
Biltokiko eraikina	25
Gizarte etxearen eraikina	23
Aldagelen eraikina eta etxola	22
Instalazioak	15
Makinak	10
Altzariak	10
Tresnak	5
Ekipo informatikoak	5

Elementua funtzionatzen hasten denetik egiten da amortizaziorako hornidura.

Bestalde, sozietateak lur eta eraikuntzetan nahiz instalazioetan egindako inbertsioen zati bat Urturiko Administrazio Batzarrak sozietateari erabiltzeko laga dizkion lurretan egin da.

Hasierako lagapen epea 29 urtekoa zen, erabakiaren datatik aurrera, hots, 1991ko uztailaren 3tik aurrera. Akordio hori kontratu berria sinatu arte luzatu zen.

2023ko ekainaren 21ean, idatziz formalizatu zen Naturgolf SA sozietatearen eta Urturiko Administrazio Batzarraren arteko kontratu bat, golf zelaia erabili eta ustiatzeko Aruaza eta La Dehesa izeneko 213 eta 215 zenbakiko mendi katalogatuetako lursailen jabari publikoaren emakida kontratua, lurak 20 urtez lagatzeko.

Sozietateak itzulketa funtsa egitea erabaki zuen, inoren jabetzako lurretan egindako inbertsioa berreskuratu ahal izateko emakida epea amaitzean.

Kontabilitateko Plan Orokorra onesten duen 1514/2007 Errege Dekretua indarrean jartzearekin batera, itzulketa funtsa desagertu egin da. Horren zenbatekoa lurren balioaren narriaduratzat jo da, eta ibilgetu materialaren balio garbiari eragin dio.

Halaber, arau hori aplikatzearen ondorioz, makila gelaren zenbatekoa aktibatu da eraikuntzetan, *renting* kontratu bidez finantzatutakoa; izan ere, aktibo definizioarekin bat datorrela jo da. Elementu hori baloratzeko, 2008ko urtarilaren 1ean aktibatu zenean ordaintzeke zituen kuoten zenbateko eguneratua hartu da aintzat.



Ekitaldi bakoitzaren bukaeran, ibilgetu materialaren elementuen balioaren analisisa egingo da, horietakoren bat hondatuta egotearen zantzurik dagoen egiaztatzeko.

Ibilgetu materialaren erabilera edo bizitza baliagarria luzatzen ez duten mantentze eta konponketa gastuak jazotzen diren unean bertan galera eta irabazien kontuan kargatzen dira.

c) Finantza tresnak

Finantza aktiboak eta pasiboak beren epemugen arabera sailkatzen dira; hau da, hamabi hilabeteen edo arinago amaitzen direnak aktibo eta pasibo arruntak dira eta epe luzeagoa dutenak aktibo eta pasibo ez arruntak.

Erakundeak finantza tresnen kapituluaren erregistratuta dauzka sozietate batean finantza aktibo bat eta, aldi berean, beste sozietate batean finantza pasibo bat edo ondare tresna bat sortzen duten kontratuak. Beraz, honako hauek dira finantza tresnak:

a) Finantza-aktiboak:

- Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak
- Merkataritza eragiketengatiko kredituak: bezeroak eta hainbat zordun.
- Beste sozietate batzuen ondare tresna eskuratuak: akzioak, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak eta bestelako ondare tresnak
- Beste finantza-aktibo batzuk, hala nola kreditu erakundeetako gordailuak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, eratutako fidantzak eta gordailuak.

b) Finantza-pasiboak:

- Merkataritza eragiketengatiko zordunketak: askotariko hornitzaile eta hartzekodunak.
- Kreditu erakundeekiko zorrak
- Beste finantza pasibo batzuk: hirugarrenekiko zorrak, hala nola kreditu erakunde ez diren pertsonengandik edo sozietateetatik jasotako finantza mailegu eta kredituak, aktibo ez-korronteen erosketan sortutakoak barne, eta jasotako fidantzak eta gordailuak.

c.1. Epe luzerako eta epe laburrerako finantza inbertsioak

➤ Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Finantza-aktibo bat kategorian sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta sozietateak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzearen ondoriozko diru fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza-aktiboaren kontratu baldintzek diru fluxuak eragiten badituzte zehaztutako datetan, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez badira. Kontratueta diru fluxuak, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeke dagoen printzipalaren gaineko interesak baino ez badira, ohiko maileguaren edo mailegu arruntaren izaera duen akordio bati datzekio, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes tasan edo merkatutik beherako interes tasan adostea.

Oro har, kategorian honetan sartzen dira merkataritza eragiketengatiko kredituak (erakundearen trafiko eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza aktiboak, kobrantza geroratuarekin), eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko kredituak (ondare tresnak eta eratorriak ez diren, merkataritza jatorrikoak ez diren, haien kobrantzek zenbateko zehatza edo zehaztu daitekeen zenbatekoa duten eta sozietateak emandako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen finantza aktiboak). Hau da, kategorian horren barruan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, bai eta zorra adierazten duten balioak ere, mugaeguna finkatuta dutenak, zenbateko zehatz

edo zehazteko moduko kobrantzak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta erakundeak mugaegunera arte gordetzeko asmoa eta ahala dituenak.

- Hasierako balorazioa: hasieran, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta. Hala eta guztiz ere, balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira honako hauek, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada: urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuko interes tasa adierazirik ez daukaten merkataritza eragiketengatik kredituak nahiz, kasuan kasu, langileentzako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare tresnen gainean eskatutako ordainketak, haien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada.
- Geroko balorazioa: kostu amortizatuan egiten da eta sortutako interesak galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten kredituak, aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz, hasieran balio nominalaren arabera baloratzen badira, zenbateko horrekin baloratuta jarraituko dute, narriadurarik izan ezean.

Finantza aktibo baten kontratuzko diru fluxuak jaulkitzailearen finantza zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, sozietateak balio narriaduragatik galera kontabilizatu behar den ala ez aztertuko du.

- Narriadura: sozietateak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu honako hauen artean dagoen aldeagatik: kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoa eta haiek erregistratzeko erabilitako kontabilitate balioa.

Ekitaldi itxieran behintzat, egin beharreko balio zuzenketak egiten dira, objektiboki ikusten bada kategoria honetan sartutako finantza aktibo baten balioa, edo antzeko arrisku ezaugarriak dituzten finantza aktiboen multzo batena, narriatu egin dela hasierako kontabilizazioaren ostean gertatutako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko diru fluxu zenbatetsiak murriztea edo atzeratzea eragiten badu, beharbada zordunaren kaudimen gabeziagatik.

Finantza aktibo hauen balio narriaduragatik galera da kontabilitate balioaren eta etorkizuneko diru fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia, azken horiek hasierako kontabilizazioan kalkulaturako interes tasa efektiboaren arabera deskontatuta; fluxu horien artean egongo dira, hala badagokio, sortzen diren berme erreal eta pertsonaletatik eratorritakoak.

Narriaduragatik egindako balio zuzenketak eta itzulketak, azken hori geroko gertaerengatik galera horren zenbatekoa gutxitzen denean, gastu edo diru sarrera gisa kontabilizatzen dira, hurrenez hurren, galera-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga itzulketaren datan aktiboak izango lukeen kontabilitate balioa izango da, balio narriadura erregistratuta egon ezean.

➤ Kostuko finantza-aktiboak:

Kategoria horren barruan sartzen dira, besteak beste, taldeko sozietateen, talde anitzeko sozietateen eta sozietate elkartuen ondarean egindako inbertsioak, bai eta ondare tresnetan egindako gainerako

inbertsioak ere, baldin eta haien arrazoizko balioa ezin bada zehaztu tresna berdin-berdin baterako merkatu aktibo batean kotizatutako prezio bati erreferentzia eginez, edo ezin bada haren zenbatespen fidagarriarik lortu.

Kategoria honetan sartuko dira, halaber, interes kontingenteak dituzten partaidetza maileguak eta hasieran galera-irabazien kontuan aldaketak eginez arrazoizko balio zorroan sailkatu beharreko beste edozein finantza aktibo, arrazoizko balioaren estimazio fidagarria lortu ezin denean.

- Hasierako balorazioa: kostuan baloratzen dira (emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean aplikagarri zaizkien transakzio kostuak).
- Geroko balorazioa: kategoria honetan sartutako ondare tresnak kostuaren arabera balioesten dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta, halakorik dagoenean.
- Narriadura: ekitaldia ixtean behintzat, egin behar diren zuzenketak egiten dira, baldin eta inbertsioen kontabilitate balioa berreskuragarria ez den ebidentzia objektiboa badago. Sozietateak dagozkion narriaduren zenbatekoak erregistratzen ditu, hain zuzen, kontabilitate balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren artean dauden aldeak. Zenbateko berreskuragarritzat hartu behar dugu arrazoizko balioaren (ken salmenta kostuak) eta inbertsiotik eratorritako etorkizuneko diru fluxuen balio eguneratuaren arteko aldearen arteko zenbatekorik handiena. Ondare tresnen kasuan, fluxu horiek kalkulatzeko dira, bai partaidetzako erakundeak dibidenduak banatzearen ondorioz eta erakunde horretan egindako inbertsioa besterentzearen edo kontuetan baja ematearen ondorioz jasotzea espero direnak zenbatetsiz, bai partaidetzako sozietateak, dela ohiko jarduerengatik, dela besterentzeagatik edo kontuetan baja emateagatik, sortzea espero diren diru fluxuetan duen partaidetza kalkulatzeko.

Ondare tresnetan egindako inbertsioen zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, aktibo mota horren narriaduragatik galeraren zenbatespena partaidetzako sozietatearen ondare garbiaren eta zerga eraginaren plusbalio tazitu garbier arabera (balorazio datan daudenak) kalkulatzeko da. Balio hori kalkulatzeko, baldin eta partaidetzako sozietateak aldi berean beste batean inbertitzen badu, kontuan hartzen da Merkataritzako Kodean eta hura garatzen duten arauetan ezarritako irizpideei jarraituta egindako urteko kontu bateratuetan sartutako ondare garbia.

Balio narriaduragatik egindako balio zuzenketak kontabilizatzea eta, hala badagokio, itzultzea gastu edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galera-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga itzulketa datan inbertsioak izango lukeen kontabilitate balioa da, balio narriadura erregistratuta egon ezean.

c.2. Finantza-aktiboen birsailkapena

Sozietateak finantza aktiboak kudeatzeko modua aldatzen duenean eskudir fluxuak sortzeko, eraginpeko aktibo guztiak birsailkatuko ditu, arauan ezarritako irizpideen arabera (1/2021 ED). Kategoria birsailkatzea ez da balantzean baja ematea, baizik eta balorazio irizpidea aldatzea.

Birsailkapen hauek egin daitezke:

- Kostu amortizatuko finantza aktiboak birsailkatu emaitzen kontuan aldaketak sortu dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboen kategoriara; eta alderantziz.
- Kostu amortizatuko finantza aktiboak birsailkatu ondare garbian aldaketak sortu dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboen kategoriara; eta alderantziz.
- Emaitzen kontuan aldaketak sortu dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboak birsailkatu ondare garbian aldaketak sortu dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboen kategoriara; eta alderantziz.
- Kostuan baloratutako ondare tresnetan egindako inbertsioak birsailkatu emaitzen kontuan aldaketak sortu dituzten arrazoizko balioko finantza aktiboen kategoriara; eta alderantziz.

c.3. Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Eskuraketaren unearen ondoren sortutako finantza aktiboen interesak eta dibidenduak sarrera gisa aitortzen dira galera-irabazien kontuan. Kostu amortizatuan baloratutako finantza aktiboen interesak interes tasa efektiboaren metodoaren bidez kontabilizatzen dira, eta ondare tresnetan egindako inbertsioetatik eratorritako dibidenguengatik sarrerak, berriz, erakundeari horiek jasotzeko eskubideak sortu zaizkionean kontabilizatzen dira.

Finantza aktiboen hasierako balorazioan independenteki erregistratzen dira, kontuan hartuta euren epemuga, sortutako eta une horretan iraungi gabeko interes esplizituen zenbatekoa eta organo eskudunak eskuraketaren unean erabakitako dibidenduen zenbatekoa.

Era berean, banatutako dibidenduak zalantzarik gabe eskuratze data baino lehen sortutako emaitzetatik badatoz, partaidetzako erakundeak eskuratze dataren ondoren sortutako etekinak baino zenbateko handiagoak banatu direlako, ez dira diru sarrera gisa kontabilizatzen, eta inbertsioaren kontabilitate balioa murrizten dute.

Partaidetzako erakundeak irabaziak sortu ote dituen erabakitzeko, eskuratze datatik galera-irabazien kontu indibidualean kontabilizatutako etekinak soilik hartzen dira kontuan, salbu eta, zalantzarik gabe, onura horien kargurako banaketa inbertsioaren berreskurapentzat kalifikatu behar bada dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

c.4. Finantza-aktiboen baja

Sozietate batek finantza aktibo bati baja ematen dio finantza aktiboaren eskudiru fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen edo lagatzen direnean, eta haren jabetzari datxezkion arriskuak eta etekinak nabarmen eskualdatu direnean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, oro har, kaudimengabezia eta berandutze arriskuak transmititu badira gertatzen dela ulertzen da.

Finantza aktiboari baja ematen zaionean, egotz daitezkeen transakzio kostuetatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate balioaren arteko aldeak, gehi zuzenean ondare garbian kontabilizatu den edozein zenbateko metatuk, zehazten du zein izan den aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera, eta ekitaldi horretan galera edo irabazi horren emaitzaren parte izango dena.

Aitzitik, sozietateak ez die baja ematen finantza aktiboari, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza pasiboa aitortzen du, bere jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak funtsean atxikitzen diren finantza aktiboen lagapenetan.



c.5. Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Erantsitako egoera balantzeko epigrafe honen barruan erregistratzen dira kutxa eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta epemuga hiru hilabete baino gutxiagoko epe laburreko beste inbertsio batzuk. Azken hauek, hain zuzen, kutxan arin egin daitezke eta ez dute balioak aldatzeko arriskurik

c.6. Finantza-pasiboak

Sozietatearen finantza pasiboak, baloraziorako, kategoria honetan sartzen dira:

➤ **Kostu amortizatuko finantza-pasiboak:**

Kategoria honen barruan finantza pasibo guztiak sailkatzen dira, galera-irabazien kontuan aldaketak sortzen dituzten arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza eragiketen ondoriozko zordunketak eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko zordunketak.

Mailegu arrunt edo komun baten ezaugarriak dituzten partaidetza maileguak ere kategoria horretan sartuko dira, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes tasan edo merkatutik beherako interes tasan adostea.

- **Hasierako balorazioa:** hasieran arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuen bidez doitu. Hala eta guztiz ere, balio nominalaren arabera balora daitezke honako hauek, diru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada: urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuko interes tasarik ez daukaten merkataritza eragiketen zordunketak eta hirugarrenek partaidetzei buruz eskatutako ordainketak, haien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero bada.
- **Geroko balorazioa:** kostu amortizatuaren arabera. Sortutako interesak galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, benetako interes tasaren metodoa aplikatuz. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten zordunketak, aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz, hasieran balio nominalaren arabera baloratzen badira, zenbateko horrekin baloratuta jarraituko dute.

c.7. Finantza-pasiboen baja

Sozietateak finantza pasibo bati edo haren zati bati baja emango dio obligazioa azkendu denean, hau da, ordaindu, ezeztatu edo iraungi denean.

c.8. Emandako eta jasotako fidantzak

Betebehar jakin batzuen berme gisa eratutako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratzen dira, eta zenbateko hori ez da haien arrazoizko balioaren oso desberdina.

Errentamendu operatiboengatik edo zerbitzuak emateagatik emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea errentamenduagatik edo zerbitzua emateagatik ordainketa edo kobrantza aurreratutzat hartzen da, eta errentamenduaren aldiko edo zerbitzua ematen den



aldiko galera-irabazien kontura egozten da, salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko sarrerei buruzko arauarekin bat etorriz.

Fidantzen arrazoizko balioa kalkulatzean, gerakin alditzat hartzen da kontratuaren gutxieneko epe konprometitua, zeinean ezin baita fidantzaren zenbatekoa itzuli, itzultzeko portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Fidantza epe laburrerako denean, ez da diru fluxuen deskonturik egin behar haren eragina esanguratsua ez bada.

c.9. Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa da elkarrengandik modu independentean transakzio bat egiten duten alderdi interesdunek, behar bezala informatuta, aktibo bat trukatzearen edo pasibo bat likidatzearen zenbatekoa.

Oro har, arrazoizko balioaren arabera baloratutako finantza tresnen balorazioan, sozietateak merkatu balio fidagarri baten arabera kalkulatzeko du balio hori, eta arrazoizko balio horren erreferentziarik onena merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, baloraziorako eredu eta teknikak aplikatuz lortu da arrazoizko balioa.

Merkataritza eragiketeko kredituen eta zordunketen kontabilitate balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela onartu da.

d) Izakinak

Eskuratze prezioaren arabera baloratzen dira.

Hemen sartzen dira publikoaren eskura jartzen diren elementuak, hala nola golf pilotak, orgak eta makilak, eta sozietateak eskuratu eta salmentarako izendatutako materiala (arropa, pilotak, teeak, eskularruak), azken inbentarioan geratzen direnak.

Ekitaldiaren amaieran kontatzen dira.

Izakinen balio garbi gauzagarria haien eskuratze prezioa edo produkzio kostua baino txikiagoa denean, dagozkion balorazio zuzenketak egiten dira, galera-irabazien kontuko gastu gisa aitortuz.

Izakinen balioaren zuzenketa eragin zuten inguruabarrak desagertzen badira, zuzenketaren zenbatekoa berrinbertitu egingo da, galera-irabazien kontuko diru sarreratzat aitortuz.

e) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Kapital dirulaguntza ez-itzulgarriak baloratzen dira eman zen zenbatekoaren arabera, eta ematen diren unean erregistratzen, ondare garbiaren barruan.

Zergaldiaren eragina ez da kontuan hartzen, sozietateak zerga oinarri negatibo nahikoak dituelako hura konpentsatzeko, zuzentzea ez aktiboaren irizpideari jarraituz. Izan ere, sozietateak etorkizunean zerga oinarri positiboak sortzeko aukera urria da.

Dirulaguntza horiek aplikatu zaizkien ondasunen amortizazioaren arabera inputatzen dira.



Dirulaguntzak gastu espezifikoak finantzatzeko ematen direnean, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko diru sarrera gisa inputatzen dira.

f) Sozietateen gaineke zerga

Sozietateak ez du gasturik kontabilizatzen kontzeptu horrengatik, ekitaldian emaitza negatiboak aurkeztu baititu, bai eta zerga oinarri negatibo bat ere zergapetzeari begira.

Zuhurtasun irizpideari jarraituz, sozietateak ez du kontabilizatu kreditu fiskalik zerga oinarri negatiboaren ondorioz.

g) Diru sarrerak eta gastuak

Sozietateak bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru sarrerak aitortzen ditu erabiltzaileekin eta/edo zordunekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, sozietateak diru sarrera baloratuko du, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioak adierazten duen zenbatekoan.

Aitorpena:

Kontratu batetik eratorritako diru sarrerak aitortzen ditu sozietateak, konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen gaineke kontrola (hau da, bete beharreko betebeharrak) erabiltzaile/zordunari transferitzen zaionean (edo transferitu ahala).

Ondasun edo zerbitzu baten kontrola (aktibo bat) ondare elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeke eta gainerako onura guztiak lortzeko gaitasunari dagokio. Kontrolaren barruan sartzen da gaitasuna izatea eragozteko beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabakitzea eta onurak lortzea.

Bete beharreko betebeharrak bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak egitea), sozietateak kontratuaren hasieran erabakitzen du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik (oro har, zerbitzu emateetatik edo ondasun salmentatik) eratorritako diru sarrerak kontratu betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, betiere gizarteak informazio fidagarria badu aurrerapen maila neurtzeko.

Sozietateak, hartutako konpromisoa betetzen duen heinean, berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu egiten ditu aitortu beharreko diru sarreren zenbatespenak. Berrikuspen horien beharrak ez du nahitaez adierazten eragiketaren amaiera edo emaitza fidagarritasunez zenbatetsi ezin denik.

Data jakin batean sozietatea ez bada gauza betebeharraren betetze maila arrazoiz neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), nahiz eta konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero duen, diru sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen zenbateko berean.



Une jakin batean betetzen diren kontratu betebeharren kasuan, egikaritzetik eratorritako diru sarrerak data horretan aitortzen dira. Inguruabar hori gertatu arte, produktua (ondasunak edo zerbitzuak) ekoiztean edo fabrikatzean sortutako kostuak izakin gisa kontabilizatuko dira, hala badagokio.

Salmentagatiko edo zerbitzu emateagatiko diru sarrera gisa aldez aurretik aitortutako kreditu eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduragatiko balio zuzenketagatiko gastu gisa erregistratuko da narriaduragatiko galera, eta ez diru sarrera txikiago gisa.

Betebeharra denboran zehar betetzea:

Sozietateak aktibo baten kontrola (oro har, zerbitzu edo produktu batena) denboran zehar transferitzen duela ulertzen da irizpide hauetako bat betetzen denean:

- a) Erabiltzaileak/zordunak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu sozietatearen jarduerak ematen dituen onurak (normalean, zerbitzu bat ematea) erakundeak garatu ahala, zerbitzu errepikakor batzuetan gertatzen den bezala (segurtasuna edo garbiketa). Kasu horretan, beste sozietate batek kontratua bere gain hartuko balu, ez luke orain arte egindako lana funtsean berriro egin beharko.
- b) Sozietateak aktibo bat (ukigarria edo ukiezina) sortzen edo hobetzen du, eta bezeroak kontrolatzen du jarduera garatu ahala (adibidez, bezeroaren eremuan egindako eraikuntza zerbitzu bat).
- c) Sozietateak aktibo espezifiko bat egiten du bezeroarentzat (oro har, zerbitzu edo instalazio tekniko konplexu bat edo espezifikazio bereziak dituen ondasun partikular bat) erabilera alternatiborik gabe, eta sozietateak eskubidea du ordura arte osatu den jardueragatik kobratzeko (adibidez, bezeroari iritzi profesional bat ematen dioten aholkularitza zerbitzuak).

Aktiboaren gaineko kontrolaren transferentzia denboran zehar egiten ez bada, sozietateak sarrera aitortzen du, une jakin batean betetzen diren betebeharretarako ezarritako irizpideei jarraikiz.

Betebeharra denboraren une batean bete izanaren adierazleak:

Bezeroak aktiboaren kontrola lortzen duen une zehatza identifikatzeko (oro har, ondasun bat), sozietateak honako adierazle hauek hartzen ditu kontuan, besteak beste:

- a) Bezeroak bere gain hartzen ditu aktiboaren jabetzari datxekzion arrisku eta onura esanguratsuak. Puntu hori ebaluatzean, sozietateak baztertu egiten du aktiboa transferitzeko konpromisoaz bestelako betebehar bereiziren bat eragiten duen arrisku oro. Adibidez, baliteke sozietateak aktiboaren kontrola transferitu izana, baina aktiboaren bizitza baliagarrian mantentze zerbitzuak emateko betebeharra bete ez izana.
- b) Sozietateak aktiboaren jabetza fisikoa transferitu du. Hala ere, baliteke jabetza fisikoa aktibo baten kontrolarekin bat ez etortzea. "Adibidez, berrerosteko akordio batzuetan eta gordailu akordio batzuetan, bezero edo kontsignatario batek aktibo baten jabetza fisikoa izan dezake, eta aktibo hori sozietate lagatzaileak kontrolatzen du; beraz, aktibo hori ezin da transferitutzat jo." Aitzitik, fakturazioaren ondorengo entrega akordioetan, sozietateak bezeroak kontrolatzen duen aktibo baten jabetza fisikoa izan dezake.
- c) Bezeroak jaso (onartu) du aktiboa, kontratuko zehaztapenen arabera. Sozietate batek modu objektiboan erabaki badezake ondasunaren edo zerbitzuaren kontrola bezeroari transferitu zaiola adostutako zehaztapenen arabera, azken hori onartzeak ez luke eraginik izango kontrolaren transferentziari buruzko zehaztapenean. Adibidez, onarpen klausula zehaztutako tamaina edo pisu



ezaugarriak betetzean oinarritzen bada, sozietateak zehaztu dezake ea irizpide horiek bete diren bezeroaren onarpenaren berrespena jaso aurretik.

Hala ere, sozietateak ezin badu objektiboki zehaztu bezeroari emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituela, ezin izango du ondorioztatu bezeroak kontrola lortu duenik bezeroaren onarpena jaso arte.

Bezero bati produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) proba edo ebaluazio erregimenean ematen bazaizkio eta bezero horrek ez badu kontraprestazioa ordaintzeko konpromisorik hartu probaldia amaitu arte, produktuaren kontrola ez zaio bezeroari transferitu bezeroak onartu arte edo aipatutako epea amaitu arte desadostasuna jakinarazi gabe.

- d) Sozietateak kobratzeko eskubidea du aktiboa transferitzeagatik.
- e) Bezeroak aktiboaren jabetza du. Hala ere, sozietateak jabetza eskubidea bezeroaren ez-betetzearen aurkako babes gisa soilik gordetzen duenean, horrek ez lioke bezeroari galaraziko aktiboaren kontrola lortzea.

Balorazioa:

Ondasunen salmentatik eta zerbitzuak ematetik datozen diru sarrera arruntak haietatik datorren jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioan baloratzen dira eta, kontrako ebidentziarik ezean, bezeroari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, hauek kenduta: prezioan edo sozietateak eman ditzakeen antzeko beste partidetan egindako deskontu edo beherapen ororen zenbatekoa, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, merkataritzako kredituei erantsitako interesak sartu ahal izango dira, epemuga urtebete edo laburragoa badute eta kontratuzko interes tasarik ez badute, diru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

Ez dira diru sarreraren barruan sartzen sozietateak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak emateko eta zerbitzuak egiteko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ez eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak ere.

Sozietateak, sarreraren balorazioan, kontuan hartzen du kontraprestazio aldakorren zenbatespen onena, baldin eta oso litekeena bada aitortutako diru sarreraren zenbatekoaren itzulketa esanguratsurik ez gertatzea, ondoren kontraprestazio horri lotutako ziurgabetasuna ebazten denean.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, aktibo horien salmentetan edo erabileran parte hartuz, honako gertakari hauen ondorengoa gertatzen denean (edo gertatzen den heinean) soilik aitortzen da:

- a) Salmenta edo ondorengo erabilera gertatzen da; edo
- ii) Sozietateak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen betebeharra, kontraprestazio aldakor osoa edo zati bat esleitu zaiona, bete egiten da (edo partzialki betetzen da).

Etorkizuneko salmenten konturako aurrerakinak jasotako balioaren arabera baloratuko dira, halakorik badago.



h) Hornidurak eta kontingentziak

Sozietateak honako pasibo hauek onartzen ditu horniduratzat: kontabilitateko plan orokorreko kontzeptuen esparruko definizioa eta erregistroko edo kontabilitateko irizpideak betetzen dituztelarik, zenbatekoa edo kitatze data zehaztu gabe dutenak.

Ez da zenbatetsi aurreko betekizunak betetzen dituen pasiborik.

i) Langileen gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabili diren irizpideak

Bidezko arrazoiren bat egon ezean, erakundeek kalte ordainak eman behar dizkiete langileei haien zerbitzugintza eteten denean.

Lana ezohiko moduan amaitzeko beharrik aurreikusten ez denez eta lana beren borondatez uzten duten langileek edo erretiratzen direnek kalte ordainik jasotzen ez dutenez gero, kalte ordainik eman behar izanez gero, ordainketak langileak kanporatzeko erabakia hartzen den unean bertan kargatzen dira gastuetara.

Sozietateak ez du pentsio konpromisorik edo antzeko betebeharririk langileekin; beraz, ez da kontzeptu horren ziozko zenbatekorik jaso.

5. IBILGETU UKAEZINA

Ekitaldi honetako eta aurreko ekitaldiko saldoen eta mugimenduen xehetasuna taula honetan ematen da, elementu multzoen arabera:

	Informatika aplikazioak	Patenteak eta markak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023KO EKITALDIAN	14.854,06	1.450,00	16.304,06
(+) Diru sarrerak edo intsuldaketak	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2023KO EKITALDIAN	14.854,06	1.450,00	16.304,06
C) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2024KO EKITALDIAN	14.854,06	1.450,00	16.304,06
(+) Diru sarrerak edo intsuldaketak	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
D) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2024KO EKITALDIAN	14.854,06	1.450,00	16.304,06
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2023KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
(+) Gehikuntzak hornidurengatik edo intsuldaketengatik	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
F) AMORTIZAZIO METATUA, 2023KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
G) AMORTIZAZIO METATUA, 2024KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
(+) Gehikuntzak hornidurengatik edo intsuldaketengatik	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
H) AMORTIZAZIO METATUA, 2024KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	14.854,06	1.450,00	16.304,06
KBG 2023KO ABENDUAREN 31N	0,00	0,00	0,00
KBG 2024KO ABENDUAREN 31N	0,00	0,00	0,00

Erabat amortizatutako ibilgetu elementu ukiezinen zenbatekoa hau da:

Kontzeptua	2024	2023
Aplikazio informatikoak eta markak	16.304,06	16.304,06
GUZTIRA	16.304,06	16.304,06

Ez da gertatu ezer ekitaldi honetan edo etorkizunekoetan eragin nabarmenik izango duenik hondar balioei, balio bizitzetara edo amortizazio metodoei eraginez menturaz.

Sozietateak ez du balio zuzenketarik egin ibilgetu ukiezinaren ondasunetan.

6. IBILGETU MATERIALA

Ekitaldi honetako eta aurreko ekitaldiko saldoen eta mugimenduen xehetasuna taula honetan ematen da, elementu multzoen arabera:

	Lursailak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023KO EKITALDIAN	3.213.873,75	1.956.451,34	5.170.325,09
(+) Diru sarrerak edo intsuldaketak	0,00	60.578,84	60.578,84
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-34.664,91	-34.664,91
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2023KO EKITALDIAN	3.213.873,75	1.982.365,27	5.196.239,02
C) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2024KO EKITALDIAN	3.213.873,75	1.982.365,27	5.196.239,02
(+) Diru sarrerak edo intsuldaketak	53.616,60	130.561,50	184.178,10
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-8.659,70	-8.659,70
D) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2024KO EKITALDIAN	3.267.490,35	2.104.267,07	5.371.757,42
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2023KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.413.175,96	1.880.449,01	3.293.624,97
(+) Gehikuntzak hornidurengatik edo intsuldaketengatik	10.913,84	9.580,29	20.494,13
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	-34.664,91	-34.664,91
F) AMORTIZAZIO METATUA, 2023KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.424.089,80	1.855.364,39	3.279.454,19
G) AMORTIZAZIO METATUA, 2024KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.424.089,80	1.855.364,39	3.279.454,19
(+) Gehikuntzak hornidurengatik edo intsuldaketengatik	11.545,00	19.518,64	31.063,64
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0	-8.659,70	-8659,7
H) AMORTIZAZIO METATUA, 2024KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.435.634,80	1.866.223,33	3.301.858,13
I) LURSAILEN BALIOAREN NARRIADURA, 2023KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.383.368,36	0,00	1.383.368,36
(+) Horniduren ondoriozko gehikuntzak	1.520,71	0,00	1.520,71
(-) Narriaduraren zuzenketak	0,00	0,00	0,00
J) LURSAILEN BALIOAREN NARRIADURA, 2023KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.384.889,07	0,00	1.384.889,07
K) LURSAILEN BALIOAREN NARRIADURA, 2024KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	1.384.889,07	0	1.384.889,07
(+) Horniduren ondoriozko gehikuntzak	5.232,19	0	5.232,19
(-) Narriaduraren zuzenketak	0	0	0
L) LURSAILEN BALIOAREN NARRIADURA 2024KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	1.390.121,26	0	1.390.121,26
KBG 2023KO ABENDUAREN 31N	404.894,88	127.000,88	531.895,76
KBG 2024KO ABENDUAREN 31N	441.734,29	238.043,74	679.778,03

2024ko eta 2023ko ekitaldiak ixtean, "Lursailak eta eraikuntzak" partidan lursailei dagokien zenbatekoa 397.631,91 euro eta 361.239,50 euro da, hurrenez hurren.

Lursailen partidak barnean hartzen ditu Lagranen egindako 301.931,77 euroko inbertsioak, eta gainerakoa Urturin egin da, Urturiko Administrazio Batzarrak sozietateari lagatako lurren gainean. Eraikuntzak lagatako lurren gainean egin dira.



Erabat amortizatutako ibilgetu elementu ukiezin zenbatekoa hau da:

Kontzeptua	2024	2023
Eraikinak	1.249.468,37	1.249.468,37
Instalazio teknikoak	1.029.197,39	1.033.642,77
Makinak	448.064,46	450.064,46
Tresnak	109.888,16	112.102,48
Altzariak	206.877,08	208.918,50
Informazioa prozesatzeko ekipoak	36.008,35	36.008,35
GUZTIRA	3.079.503,81	3.090.204,93

Sozietatearen ibilgetu materiala osatzen duten elementuek ez dute kargarik.

2024ko ekitaldia ixtean, ez dago ibilgetua erosteko konpromiso irmorik. Ibilgetua saltzeko konpromiso irmorik ere ez dago 2024ko abenduaren 31n. Urteko kontu hauek formulatzeko egunean, ez dago ibilgetu materialaren ondasunen baliagarritasunari eragiten dion inguruabar berezirik (hala nola auziak, enbargoak, aldi mugatuko errentamendua edo bestelakoak).

Sozietatearen politikan sartzen da aseguru polizak formalizatzea bere ibilgetu materialaren elementu batzuek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. Administrazioaileen ustez, 2024ko ekitaldia ixtean lortutako estaldurak egokiak dira, estali diren arriskuak aintzat hartuta.

7. IZAKINAK

Honela zegoen osaturik partida hau abenduaren 31n:

Kontzeptua	2024	2023
Golferako gaiak	12.244,38	11.275,88
Dendako materiala	9.421,77	7.871,28
GUZTIRA	21.666,15	19.147,16

Ez dago mugarik bermeengatik, pignorazioengatik, fidantzengatik edo beste kausa batzuek erabiltzeko .

8. FINANTZA TRESNAK

Finantza aktibo guztiak kostu amortizatuko finantza aktiboen kategorian sartzen dira.

8.1. Finantza-aktiboak

Balantzeko epe luzeko aktiboko finantza tresnen informazioa ematen da ondoren, moten arabera:

Kont. deribatuak eta bestelakoak	2024	2023
Kobratu beharreko maileguak eta partidak	0,00	433,98
GUZTIRA	0,00	433,98

Zenbateko osoa enpresa ibilgailuaren *renting* modalitateko errentamendu kontratuaren fidantzari zegokion. Kontratu hori 2024ko ekitaldian amaitu da.



Balantzeko epe laburreko aktiboko finantza tresnen informazioa ematen da ondoren, kategorien arabera:

Kont. deribatuak eta bestelakoak	2024	2023
Kobratu beharreko maileguak eta partidak	23.187,24	6.194,04
GUZTIRA	23.187,24	6.194,04

"Kobratu beharreko maileguak eta partidak" epigrafea honela banakatu da:

Kont. deribatuak eta bestelakoak	2024	2023
Hainbat zordun	1.884,57	1.111,80
Kobratzeko dauden interesak	680,64	289,63
Epe laburrerako beste zor batzuk	14.520,00	0,00
Epe laburrerako aldizkakotasuntzeak	6.102,03	4.792,61
GUZTIRA	23.187,24	6.194,04

"Epe laburrerako beste zor batzuk" partida Arabako Foru Aldundiak 2024ko abenduan galerak konpentsatzeko erabakitako funts ekarpena handitzeari dagokio, eta oraindik ez da ordaindu.

8.2. Finantza-pasiboak

Finantza pasibo guztiak kostu amortizatuko finantza pasiboen kategorian sartzen dira.

Sozietatearen balantzeko epe laburreko pasiboaren finantza tresnak, moten arabera:

Kont. deribatuak eta bestelakoak	2024	2023
Ordaindu beharreko partidak eta zorrak	156.391,18	148.045,53
GUZTIRA	156.391,18	148.045,53

"Ordaindu beharreko partidak eta zorrak" epigrafea honela xehakatu da:

Partidak	2024	2023
Hornitzaileak	3.729,62	2.316,16
Zerbitzuak emateagatiko hartzekodunak	119.681,27	109.927,51
Pertsonala	0,00	5.181,74
Epe laburrerako beste zor batzuk	85,00	650,90
Epe laburrerako aldizkakotasuntzeak	32.895,29	29.969,22
GUZTIRA	156.391,18	148.045,53

"Epe laburrerako aldizkakotasuntzeak" partidan jaso dira 2024ko ekitaldian aurretiaz kontabilizatutako diru sarrerak, sortzapena 2025eko ekitaldian dutenak eta harpidetutako bazkideen kuotei dagozkienak.



8.3. Epemugen arabera sailkapena

Beheko taulan epemugaren arabera sailkatuta ageri dira sozietatearen finantza pasiboak, urte bakoitzeko ekitaldia ixtean epemugaratuko diren zenbatekoak, azken epemugara arte:

	2025
Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	123.495,89
Hornitzaileak	3.729,62
Hainbat hartzekodun	119.681,27
Langileak	0,00
Epe laburrerako bestelako zorrak	85,00
Epe laburrerako aldizkakotasuntzeak	32.895,29
GUZTIRA	156.391,18

9. FUNTS PROPIOAK

Hau da funts propioen kontuek izan duten bilakaera ekitaldian zehar:

	2023				2024			
	Hasierako saldoa	Igoerak	Gutxitzeak	Amaierako saldoa	Hasierako saldoa	Igoerak	Gutxitzeak	Amaierako saldoa
Sozietatearen kapitala	508.040,00	0,00	0,00	508.040,00	508.040,00	0,00	0,00	508.040,00
Erreserbak	5.098,54	0,00	0,00	5.098,54	5.098,54	0,00	0,00	5.098,54
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(40.668,15)	0,00	4.888,30	(35.779,85)	(35.779,85)	(32.797,01)	0,00	(68.576,86)
Ekitaldiko emaitza	(494.991,70)	(498.991,10)	494.991,70	(498.991,10)	(498.991,10)	(495.610,38)	498.991,10	(495.610,38)
Bazkideen beste ekarpen batzuk	499.880,00	466.194,09	(499.880,00)	466.194,09	466.194,09	731.451,41	466.194,09	731.451,41
AMAIERAKO SALDOA	477.358,69	(32.797,01)	0,00	444.561,68	444.561,68	203.044,02	32.797,01	680.402,71

Sozietatearen kapitala

Sozietatearen kapitala 12.701 akziok osatzen dute, eta horietako bakoitzak 40,00 euroko balio nominala du, oso-osorik harpidetua eta ordaindua.

Akziodunak honela banatzen dira:

AKZIODUNAK	AKZIOAK
Arabako Foru Aldundia	12.698
Bernedoko Udala.	1
Lagrango Udala	1
Urturiko Administrazio Batzarra	1

Sozietatearen kapitalaren eta aurreko ekitaldietako galeren ondorioz gutxitutako ondarearen artean oreka berrezartzeko xedearekin, 2022ko ekitaldian kapitala murriztu da 12.701 akzio izendunen balio nominala 40,00 euroan murrizteko prozeduraren bidez; beraz, balio hori 80,00 eurotik 40,00 eurora igaro da. Sozietatearen kapitala 508.040,00 euroan ezarri zen.



Bazkideen ekarpena

Arabako Foru Aldundiak, bazkide nagusia denez gero, funtsen ekarpen hauek egin ditu 2024ko ekitaldian:

- Galerak konpentsatzeko 472.107,00 euroko ekarpena, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 13ko 59/2024 Erabakiaren bidez onetsia.

Ekarpen hori ez da osorik erregistratu ondare garbiaren barruan. Bazkide gisa duen partaidetzaren ehunekoa (% 99,976) aplikatzearen emaitza izan dira zenbatekoak. Gainerako kopuruak dohaintzat hartu dira.

- 345.00,00 euroko ekarpena, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 816/2023 Erabakiaren bidez onetsia, 2023/2024 Inbertsio Plana finantzatzeko. 2024ko ekitaldian aplikatu behar zen, eta ondare garbian erregistratu zen 245.000,00 euroko zenbatekoaren % 99,976; zenbateko justifikatua eta gauzatutako inbertsioen baliokidea.

Gainerako 100.000,00 euroak 2025eko ekitaldian jarriko dira; izan ere, Foru Gobernu Kontseiluak, martxoaren 4ko 123/2025 erabakiaren bidez, onetsi zuen 2025eko abenduaren 31ra arte luzatzea abenduaren 12ko 816/2023 Erabakiaren bidez onetsitako planean jasotako inbertsioak gauzatzeko gehieneko epea.

- Galerak konpentsatzeko, funtsak handitzeko 14.520,00 euroko ekarpena, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 815/2024 Erabakiaren bidez onetsia.

Beste ekarpenetan bezala, ondare garbiaren % 99,976 erregistratu da, eta gainerako zenbatekoa dohaintzarako erabili da.

10. ZERGA EGOERA

Hona hemen sozietateak erakunde publikoekin 2024ko abenduaren 31n zituen saldoen xehetasunak:

Kontua	2024		2023	
	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna
<u>OGASUNA</u>				
Foru Ogasunaren zorra BEZagatik, soziet.	63.073,11	0,00	45.614,28	0,00
Foru Ogasuna atxikipenengatik hartzekodun	0,00	10.740,92	0,00	9.087,81
<u>GIZARTE SEGURANTZA</u>	0,00	6.231,82	0,00	6.261,37
AMAIERAKO SALDOA	63.073,11	16.972,74	45.614,28	15.349,18

Zerga ikuskapenak

Aplikatzekoak zaizkion zerga kontzeptu guztiak ikuska daitezke, legezko preskripzio epean.

Sozietateen gaineko zerga

Kontabilitateko emaitza negatiboa bat dator sozietateen gaineko zergaren oinarri negatiboarekin.



Sozietateak ez du erregistratzen ekitaldi honetako eta aurrekoetako zerga oinarri negatiboen ondoriozko kreditu fiskala, haiek gerora berreskuratzeko aukerarik ez dagoela iritzita.

11. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

11.1. Erakundeak berezko jarduerarengatik izan dituen sarrerak

Erakundeak berezko jardueraren ondorioz izan dituen sarrerak banakatuta ematen dira jarraian:

Kontua	Saldoa 2024ko abenduaren 31n	Saldoa 2023ko abenduaren 31n
Salgaien salmenta	21.108,01	19.447,76
Zerbitzu emateak	458.231,26	449.116,72
AMAIERAKO SALDOA	479.339,27	468.564,48

11.2. Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk

Honako hau da partida honen osaera zehatza:

Kontua	Saldoa 2024ko abenduaren 31n	Saldoa 2023ko abenduaren 31n
Ustiapenerako dirulaguntzak, dohaintzak	3.593,99	1.448,90
Zenbait zerbitzu	26.651,98	19.308,01
Ezohiko sarrerak	15.222,52	15.313,86
AMAIERAKO SALDOA	45.468,49	36.070,77

"Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk" partidaren barruan, ustiapenerako dirulaguntzak eta dohaintzak jasotzen dira, Arabako Foru Aldundiaren ekarpenetako partaidetza ehunekoa aplikatzearen ondoriozkoak (12.2 oharra).

Askotariko zerbitzuengatik diru sarrerak sustapen jardueretatik, merkataritza laguntzako zerbitzuetatik eta BTT zentrotik datoz nagusiki, eta ezohiko diru sarrerak, berriz, 2022ko eta 2023ko ekitaldietako OHZren likidazioetan aurkeztutako erreklamazioak direla eta egindako itzulketei dagozkie.

11.3. Diru sarrera finantzarioak

Honako hauek dira kontu korranteetan izandako saldoen interes moduan sortutako zenbatekoak:

Kontua	2024	2023
Diru sarrera finantzarioak	3.026,71	1.320,20
GUZTIRA	3.026,71	1.320,20



11.4. Hornikuntzak

Instalazioak eta bestelakoak mantentzeko behar diren produktuen kontsumoek osatzen dute partida hau.

Honakoa da partida honen osaera zehatza:

Kontua	2024	2023
Erosketak (itzulketak eta edozein deskontu kenduta)	15.961,22	15.580,00
Izakinen aldakuntza	-2.518,99	-2.771,35
GUZTIRA	13.442,23	12.808,65

11.5. Langileak

Hona hemen langileen gastuen xehetasunak:

Kontua	Saldoa 2024ko abenduaren 31n	Saldoa 2023ko abenduaren 31n
Lansariak, soldatak eta asimilatuak	210.787,03	201.375,18
Gizarte Segurantzak, beste gizarte gastu batzuk	68.671,62	65.244,74
GOLFEKO LANGILEEN GASTUAK, GUZTIRA	279.458,65	266.619,92

Langileen gastuak handitu egin dira, ezarritako urteko soldata-igoeren ondorioz.

11.6. Ustiapeneko beste gastu batzuk

Hona hemen partidaren xehetasunak:

Kontua	Saldoa 2024ko abenduaren 31n	Saldoa 2023ko abenduaren 31n
Alokairuak	27.787,73	34.635,00
Konponketak eta kontserbazioa	33.680,01	30.279,87
Profesional independenteen beste zerbitzu batzuk	475.964,46	482.236,58
Aseguru primak	11.654,55	9.174,31
Banku zerbitzuak eta antzekoak	2.252,62	1.934,21
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	71.678,22	48.498,49
Hornigaiak	36.618,12	48.373,93
Beste zerbitzu batzuk	10.548,93	10.998,50
Beste zerga batzuk	16.943,85	21.970,60
Ezohiko gastuak	7.619,65	15.901,65
GUZTIRA	694.748,14	704.003,14

Partidarik garrantzitsuena "profesional independenteen zerbitzuak" izeneko da, eta kanpoko enpresa batekin kontratatutako golf zelaia mantentzeko zerbitzuaren gastua sartzen da partida horretan.

"Ustiapeneko beste gastu batzuk" gutxitu dira, batez ere elektrizitate hornidura merkatu delako, udal zergak murriztu dituztelako eta ezohiko gastuak gutxitu direlako.



11.7. Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza

Honako hau da zuzkidura, lagatako lursailetan egindako inbertsioetan aurreikusten den narriaduraren ondoriozkoa:

Kontua	Saldoa 2024ko abenduaren 31n	Saldoa 2023ko abenduaren 31n
Zuzkidura, Urturiko lurren narriadura	5.232,19	1.520,71
GUZTIRA	5.232,19	1.520,71

Urturiko golf zelaian, lagapen epean zeharreko zuzkidura lineala da, epe hori bukatzean egindako inbertsioa estaltzea ahalbidetuko duena.

Hau da erabiltzen ari diren lursailetan narriaduragatik erabat hornitutako inbertsioen zenbatekoa:

Kontzeptua	2024	2023
Urturiko lursailak	1.383.368,38	1.383.368,38
GUZTIRA	1.383.368,38	1.383.368,38

2024ko ekitaldiko zuzkidurak dagozkien lursailetak inbertsioei 102.453,03 euro dagozkie.

11.8. Ibilgetuak amortizatzeko zuzkidurak

Atal hau honela osatuta dago:

Kontua	Saldoa 2024ko abenduaren 31n	Saldoa 2023ko abenduaren 31n
Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa	0,00	0,00
Ibilgetu materialaren amortizazioa	31.063,64	20.494,13
GUZTIRA	31.063,64	20.494,13

12. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Beheko taulan banakatu dira balantzean agertzen diren jasotako dirulaguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak, baita galera eta irabazien kontuan egotzi direnak ere:

Dirulaguntzak eta dohaintzak	2024	2023
Ondare garbian agertzen dira	1.500,00	2.000,00
Galera eta irabazien kontuan agertzen dira	3.593,99	1.448,90
GUZTIRA	5.093,99	1.330,70



12.1. Kapital dirulaguntzak eta dohaintzak

Dirulaguntzen eta dohaintzen partida honen mugimenduak ondoren jasotzen dira:

	Euroak
A) 2023KO EKITALDIAREN HASIERAKO SALDOA	0,00
(+) Gehikuntzak	2.500,00
(-) Emaizetara igarotzea	(500,00)
B) 2023KO EKITALDIAREN AMAIERAKO SALDOA	2.000,00
C) 2024KO EKITALDIAREN HASIERAKO SALDOA	2.000,00
(+) Gehikuntzak	0,00
(-) Emaizetara igarotzea	(500,00)
D) 2024KO EKITALDIAREN AMAIERAKO SALDOA	1.500,00

Arabako Foru Aldundiak 2023ko ekitaldian bi ibilgailu eman zituenz dohaintzan, 2.500,00 euroko igoera izan da partida honetan, hau da, dohaintzan emandako elementuen balio zenbatetsia. Eskualdatutako zenbatekoa ibilgailuen amortizazio zuzkiduraren zenbatekoari dagokio.

Naturgolf SAK betetzen ditu aipatutako dirulaguntzak eta dohaintzak lortzeko eta mantentzeko ezarri diren legezko baldintzak.

12.2. Ustiapenerako dirulaguntzak eta dohaintzak

Hona hemen diru sarrera horien xehetasunak:

ENTITATEA	Emandako zenbatekoa	2024 abenduaren 31n kobratzeke dagoen zenbatekoa
Arabako Foru Aldundia	175,59	0,00
Arabako Foru Aldundia, Kirolak	1.418,40	0,00
Vital Fundazioa	2.000,00	0,00
GUZTIRA	3.593,99	0,00

- Arabako Foru Aldundiaren dohaintzak, 2024ko ekitaldian egindako ekarpenetako partaidetza ehunekoa aplikatzeagatik.
- Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza bat eman du Izki Golf kirol elkartearen egindako kirol jarduerarako.
- Vital Fundazioak kirol ekitaldiak egiteko laguntzak eman ditu.



13. LOTURA DUTEN ERAKUNDEEKIKO ERAGIKETAK

13.1. Lotura duten erakundeekiko eragiketak

Ekitaldi honetan sozietatearekin loturaren bat izan duten erakundeekin egindako eragiketak beheko taulan adierazi dira:

ENTITATEA	Eragiketen bolumena 2024ko ekitaldian		Eragiketen bolumena 2023ko ekitaldian	
	Gastuak	Diru sarrerak	Gastuak	Diru sarrerak
Bernedoko Udala.	15.499,78	14.867,52	20.610,00	0,00
Lagrango Udala	1.444,07	0,00	1.360,60	0,00
Urturiko Administrazio Batzarra	12.000,00	0,00	8.858,84	0,00
Arabako Foru Aldundia	0,00	1.418,40	0,00	1.336,99
GUZTIRA	28.943,85	16.285,92	30.829,44	1.336,99

2024ko ekitaldian, memoriaren 9. oharrean jasotzen den bezala, sozietateak 486.627,00 euro jaso ditu bere akziodun nagusiarengandik, Arabako Foru Aldundiarengandik, galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpen gisa. 2023ko ekitaldian 466.306,00 euro izan ziren.

Sozietateak 245.000,00 euro ere kobratu ditu 2023/2024 Inbertsio Plana finantzatzeko ekarpenetik.

13.2. Lotutara duten erakundeekiko saldoak

Aurretik lotura zuten erakundeekiko saldoen zenbatekoa, 2024ko eta 2023ko ekitaldien amaierako balantzean, 0,00 eurokoa da, Arabako Foru Aldundiarekikoa izan ezik; kobratu gabe geratzen da Arabako Foru Aldundiak 2024ko abenduan adostutako funtsen ekarpenaren igoera, 14.520,00 eurokoa.

Sozietateak, Arabako Foru Aldundiaren kontu orokorren barruan, bere titulartasuneko kontu berezian dauzkan baliabideetatik ez da sortu etekinik, ez 2024ko ekitaldian ez 2023ko ekitaldian.

14. BESTELAKO INFORMAZIOA

2024ko eta 2023ko ekitaldietan sozietateak batez beste taulan adierazten den langile kopurua izan du lanean:

KATEGORIA	2024			2023		
	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
Golfeko zuzendaria	1,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00
Administrazioko teknikaria	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00
Merkataritzako teknikaria	1,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00
Harreragilea	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00
Zaintzailea	1,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00
Zaintzaile-harreragilea	0,67	0,00	0,67	0,58	0,00	0,58
GUZTIRA	3,67	2,00	5,67	3,58	2,00	5,58



Hona hemen sozietateko langileen banaketa ekitaldia bukatzean, kategorien eta sexuaren arabera:

	2024			2023		
KATEGORIA	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
Golfeko zuzendaria	1	0	1	1	0	1
Administrazioko teknikaria	0	1	1	0	1	1
Harreragilea	0	1	1	0	1	1
Merkataritzako teknikaria	1	0	1	1	0	1
Zaintzailea	1	0	1	1	0	1
Zaintzaile-harreragilea	1	0	0	1	0	0
GUZTIRA	4	2	6	4	2	6

Ez dago % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen langilerik ez 2023ko ekitaldian ez 2024ko ekitaldian.

Ez dago goi zuzendaritzako kategoriako langilerik ez 2023an ez 2024an.

Arabako Foru Aldundikoak ez diren Administrazio Kontseiluko kideek ordainsariak jasotzen dituzte Administrazio Kontseiluaren bilkuretarako joateko dieta moduan. Dieten zenbatekoa bilkura bakoitzeko 60,10 eurotan ezarrita dago. Ekitaldi honetan guztira 661,10 euro ordaindu dira. 2023an 540,90 euro ordaindu ziren.

Bestalde, Naturgolf sozietateak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat du harpidetuta sozietatearen administratzaileek dituzten arriskuak estaltzeko, eta haren urteko prima 894,24 euro izan da.

Auditoria egin duen sozietateak hurrengo kopuruak sortu ditu zerbitzuak emateagatik:

Kontzeptua	2024	2023
Kontu auditoretzagatik kargatutako ordainsariak	3.700,00	3.700,00
Emandako zerbitzuengatik beste ordainsari batzuk	0,00	0,00
GUZTIRA	3.700,00	3.700,00

Ordainsariak Arabako Foru Aldundiak ordaintzen ditu, berak aginduta kontratatu baitira auditoretza zerbitzuak.

15. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietatearen ezaugarriak eta jardura kontuan hartuta, ez du ondareari, finantza egoerari eta horren emaitzei dagokienez garrantzitsua izan daitekeen ingurumenari lotutako erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornikuntzarik edo kontingentziarik.

Horrenbestez, sozietateak ez du ingurumenari lotutako jardunik egin, ez baita arrisku nabarmenik aurreikusi.



16. EKITALDIAN HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA GERORATZEEN INGURUKO INFORMAZIOA

Hona hemen merkataritza eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa:

	2024ko ekitaldia	2023ko ekitaldia
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	13,55	10,53
Ordaindutako eragiketen ratioa	11,74	8,07
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	28,57	28,64
ORDAINKETAK GUZTIRA	1.097.729,83	914.054,19
Egindako ordainketak, guztira	979.863,89	805.122,76
Ordaintzeke daudenak, guztira	117.865,94	108.931,43

Hona hemen berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehienekoa baino epe laburragoan ordaindutako fakturen kopurua eta moneta bolumena, eta horien ehunekoa, fakturen guztizko kopuruari eta hornitzaileei egindako ordainketen guztizko diruari dagokienez:

Ezarritako gehieneko epea baino epe laburragoan ordaindutako fakturen kopurua eta moneta bolumena	2024ko ekitaldia		2023ko ekitaldia	
	Zenbateko a	%	Zenbateko a	%
Moneta bolumena	979.863,89	100	855.976,25	100
Faktura kopurua	482	100	516	100

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia ekonomikoa hemen dago jasota: Administrazio Publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia garatu zuen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua (abenduarien 22ko 1040/2017 Errege Dekretuak aldatu du).

17. GEROKO GERTAERAK

Ez da geroko gertaerarik gertatu, erregistratzeko eta baloratzeko araua aplikatzearen ondorioz erantsitako urteko kontuen doikuntzaren bat dakarten inguruabarrak agerian jartzen dituenik, ezta memoria honetan informazio gehigarria behar duenik ere.

18. INTERES GATAZKAKO EGOERAK (KSLren 229.3 art.)

Naturgolf SA sozietatearen administratzaileek eta pertsona lotetsiek ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapital Sozietateei buruzko Legeak 229.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.



19. ARABAKO FORU ALDUNDIKO LANGILEEN DATUAK ETA EKARPENAK

Taula honetan jasotzen da langileei buruzko datuen eta Arabako Foru Aldundiaren ekarpenen gaineko informazioa, 2024ko eta 2023ko ekitaldiei dagokiena:

ARABAKO FORU ALDUNDIKO LANGILEEN DATUAK ETA EKARPENAK	2024	2023
Langile kostuak	279.458,65	266.619,92
Langile gastuak	279.458,65	266.619,92
Batez besteko plantilla	5,67	5,58
AFaren ekarpenak	732.869,81	470.112,99
Kapital dirulaguntzak, dohaintzak	0,00	2.500,00
Ustiapenerako dirulaguntzak, dohaintzak	1.418,40	1.448,90
Galerak konpentsatzeko eta finantzatzeko ekarpenak	731.451,41	466.194,09
Kapital gehikuntzak	0,00	0,00



2024KO EKITALDIKO KUDEAKETARI BURUZKO TXOSTENA

1.- IZAERA ETA JARDUERA NAGUSIAK

Honako hau du xede NATURGOLF SA sozietateak: batetik, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, kirolaren eta turismoaren inguruko jarduerak sustatzea, garatzea eta gauzatzea, betiere, aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituzten ekimenak sustatuz, Arabako Lurralde Historikoko gizartea eta ekonomia garatzen eta hobetzen lagunduko duten jarduerak.

Egun, haren jarduera nagusiak dira Izki-Golf gunea eta Urturiko golf zelaia ustiatzea eta Izki-Arabako Mendialdea BTT gunea kudeatzea, eta honako zerbitzu hauek eskaintzea:

- 18 zuloko golf zelai homologatura irtetea;
- 5 zuloko *pitch & putt* golf zelaira irtetea;
- praktikatzeko jokalekua;
- auto elektrikoak, motorrak, gurdiak eta makilak alokatzea;
- makila gela: armairuak alokatzea;
- denda;
- BTT zentroa;
- aldagelak;
- golf eskolak: hastapen eta hobekuntza ikastaroak;
- taberna-kafetegi zerbitzua.

Hona hemen sozietateak 2024ko ekitaldian egindako jarduera eta ezarritako neurri esanguratsuenak:

- Bezeroarekin komunikazio aktiboa eta etengabea izatea sare sozialetan.
- Bezeroaren zerbitzura jartzea golfean espezializatutako mugikorrerako aplikazioa, Claphouse markaren pean, ekintzak zabalduz.
- Golferako dauden abonua motak sustatzea, haiek finantzatzeko eta ordaintzeko era erraztuz.
- Golf Eskola eta bertako Haurren Kluba aurrera eramatea.
- Lehiaketen egutegia egitea eta babesletzak negoziatzea.
- Torneoak eta txapelketak antolatu eta garatzea.
- Interneten sustapena egitea bere web orrialdearen bidez, <https://www.izkigolf.eus/eu/>.
- *Community manager* lanak.
- Erreserbak linean.
- Sektoreko beste erakunde batzuekin lankidetzak hitzarmenak zabaltzea.
- Produktuak eta zerbitzuak ahalik eta ondoen saltzeko eskaintzak sortzea.
- Kolektibo eta taldeei banakako arreta ematea.
- Joko laburrerako 5 zuloko ibilbide berria kudeatzea.
- Izki Golfaren plan estrategikoa garatzea.
- Hobekuntzak bezeroek erabiltzen dituzten instalazioetan.
- Instalazioak hobetzea, ingurumen jasangarritasun handiagoa lortzera bideratutako jarduketaren bidez.
- Golf eta ardo produktu turistikoa sustatzeko ASGOVIN elkartearen bazkide sortzaile eta kudeatzailea.
- Azeriaren bidezidorra bide tematikoa, inguruko flora eta fauna ezagutarazteko eta Izkiko golf zelaian beste jarduera bat egiteko.
- Ingurumena zaintzeko eta energia aurrezteko neurriak eta bitartekoak ezartzea.

2.- NEGOZIOEN BILAKAERA

2024. urtean zehar, sozietateak bere jarduera nagusiarekin jarraitu du, zeina golfari loturik baitago guztiz, gastuaren arrazionalizazioari eutsiz kudeaketaren funtsezko puntu gisa. Horrez gain, etorkizunari begira, Izki Golfen Sustapen Planaren alde egiten jarraitu du.

Hurrengo taulan, jardueraren finantza adierazleak ageri dira, aurreko ekitaldikoekin alderaturik:

	2024	2023	%
Negozio zifrak	479.339,27	468.564,48	% 2,3
Hornikuntzak	13.442,23	12.808,65	% 4,9
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	45.468,49	36.070,77	% 26,1
Langile gastuak	279.458,65	266.619,92	% 4,8
Ustiapeneko beste gastu batzuk	694.748,14	704.003,14	% -1,3
Ibilgetuaren amortizazioa eta narriadura	36.295,83	22.014,84	% 64,9
Dirulaguntzen egozpenak	500,00	500,00	% 0
Finantza emaitza	3.026,71	1.320,20	29,3
Ekitaldiko emaitza	-495.610,38	-498.991,10	% 0,7

Negozio zifrak: Emaitza hori honako faktore hauek baldintzatu dute nagusiki:

- Instalazioak egun gehiagotan itxi dira, eta, ondorioz, egun operatibo gehiago izan dira.
- Jokalarien irteera-kopuruari eutsi zaio, eta nabarmendu behar da abonatura ez dauden jokalariai ugaritu egin direla, bai lanegunetan, bai lehiaketetan.
- Lehiaketa kopuru bera egin da, baina parte hartzearen batez bestekoa txikiagoa izan da, jaiegunetan egindako txapelketen ondorioz.
- Dendako salmentak handitu egin dira, abonatuak fidelizatzeko programari eutsi zaiolako.
- Abonatu kopurua gutxitu da, alta baino baja gehiago izan delako, eta, gainera, urtean zehar, aldi baterako bajak ugaritu direlako.
- Alokairu zerbitzuak eta praktikatzeko jokalekua erabiltzeko eskaera handiagoa izan da.
- Jarduera areagotu da irakaskuntzaren sektorean.

Hornikuntzak: Denda hornitzera eta alokairurako materialera bideratutako gastua handitu egin da, salmentak handitu direlako.

Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk: Atal honetan nabarmentzekoak dira beste zerbitzu batzuetan izandako gehikuntzak, alegia, Golf eta Ardoaren Elkarteak kudeaketan eta marketinean laguntzeko emandako zerbitzuenak, eta salbuespenezkoenak, hau da, ondasun higiezinaren gaineko zergaren erregularizazioko erreklamaziotik eratorritako diru sarrerenak.

Langile gastuak: 2024ko ekitaldian, golfeko plantillak sei langile finko izaten jarraitu du. Horietako batek aldizkako kontratua du, goi denboraldiko zortzi hilabeteetan. 2024. urteari dagokion soldata igoera % 2koa izan da.

Bestelako ustiapen gastuak: Partida honetako gastuak % 1,3 gutxitu dira, batez ere, hornidura elektrikoaren, garbiketa zerbitzuaren, errentamenduen eta zergen (OHZ) ondorioz.



Amortizazioak, narriadura eta dirulaguntza egozteak: Partida horien emaitzak okerrera egin du, batez ere ibilgetu materialean elementu berriak sartu direlako.

Ekitaldiko emaitza: Analisisian oinarrituta, golfaren ustiapenaren emaitza negatiboa da, baina galerak pixka bat gutxitu dira (% 0,7, aurreko ekitaldiarekin alderatuta), batez ere emandako golf zerbitzuetan eta ustiapeneko beste gastu batzuetan izandako hazkundearen ondorioz.

3.- GIZA BALIABIDEAK

Hamarkadak dira sozietateak zuzeneko zein zeharkako lanpostuak sortzea bultzatzen duela Arabako Mendialdean.

2024ko ekitaldiaren amaieran, sozietatearen plantilla golf jardueran aritzen diren sei langile finkok osatzen dute, hau da, aurreko ekitaldiaren itxieran zeuden berberak. 2024ko batez besteko plantillari dagokionez, 5,67 langile izaten jarraitu du.

Azpikontratek beste hamaika langile dituzte, zerbitzuak eskaintzean sozietatearen betebeharrak guztiak betetzeko.

Teknologia eta araudi berrietara egokitzeko, eta bezeroaren arretarako zerbitzua hobetzeko, 200 ordu baino gehiago bideratu dira langileen prestakuntzara.

4.- INBERTSIOAK ETA HOBEKUNTZAK

Hona hemen zerbitzua hobetze aldera ekitaldi honetan egindako inbertsioak eta hobekuntzak:

- Ureztatzeko sistema ponpaketa etxolarekin eta beste elementu batzuekin egokitu da.
- Hobekuntzak egin dira informatika sisteman zerbitzariak aldatuta.
- Alokairu zerbitzurako auto flotak eta golfeko orga elektrikoak erosi dira.
- Sarbideak berdindu eta hormigoitu dira.
- Biltegi eraikina hobetu da.
- Komunak egokitzeko eraberritzea egin da.
- Galdara gela eraberritu da.
- Soropila mozteko robotak eskuratu dira.

5.- SOZietATEAK AURREIKUSTEN DUEN EGOERA

Laburbilduz, honako helburu hauek ditu sozietateak izkiko golf zelaian hurrengo ekitaldietarako: abonatuak fidelizatzea, kanpoko erabiltzaileak ugaritzea eta zerbitzu osagarrien, dendaren eta BTTren bidez sarrera gehiago lortzea.

6.- ETORKIZUNeko EKINTZAK

2025. urtean, aurreko jardun nagusiak egiten jarraituko da, eta aipatu beharko da zer eremu berezitu den gauzatu beharreko jardueran, xede hauek lortu ahal izateko:



6.1.- Instalazioetako mantentze lanak

Naturgolfek Izki golf zelaia eta gainerako instalazioak kontserbatu, mantendu eta hobetzeko lanak egiten jarraituko du, golf produktuaren kalitateari eusteko eta ingurumenaren aldetik eraginkorrakoak eta begirunetsuagoak izateko.

Proiektu nagusien oinarria izango da hobekuntzak egitea golf zelaiko bide sarean, berokuntza sistema eraginkorretan eta soropila berrereitean.

6.2.- Bezeroari ematen zaion zerbitzua hobetzea

Bezeroari golf produktu osatua eskainiko zaio, jokalaria mota guztientzako egokia eta kalitatea/prezioa erlazio onekoa. Erakunde hau ASGOVINeko bazkidea denez, hobekuntza nabarmena izango da eskaintzaren erakargarritasunean eta kalitatean.

Bezeroari zerbitzu hobe emateko asmoz, sozietatea Kode Etikoa izeneko turismo kalitatearekiko konpromiso programan sartuta dago.

6.3.- Izki Golfeko plan estrategikoa eta merkataritza sustapeneko proiektua

2025eko ekitaldian Izki Golf plan estrategikoa onetsi zenetik, Izkiren merkataritza sustapeneko proiektua garatzeko funtsezko oinarritzat hartuta, proiektu horri jarraipena emango zaio sozietateko plantillako langileekin, lanpostua merkataritza kategorian aktibo mantenduta.

Plan estrategikoaren eta merkataritza sustatzeko proiektuaren xede nagusiak honetarako bideratu dira:

- Izki Golf zelai berezi eta golf turismoko erreferente bihurtzea, balio handiko zerbitzu, produktu eta esperientzien eskaintza lehiakor bat taxutuz, inguruko turismo eta aisialdi sektorearekin batera.
- Inguruko merkatuetako bisitari eta jatorri leku nagusietako golf turista gehiago erakartzea; baita txandakako egoitza daukaten golf lehiaketa gehiago egitea ere, aurrekontuaren jasagarritasuna bermatzeko adina jende lortzeko.
- Arabako Mendialdeko eta Araba osoko aberastasun turistikoa dinamizatzen lagunduko duten turista berriak lortzea.

Ekintza hauek egiten jarraituko da, 2025ean, Izki Golf sustatzeko programan:

- Euskarriak egitea: hobekuntzak merkataritza euskarri profesionaletan.
- Irudia eta posizionamendua: sare sozialetako sustapen plana, lineako marketineko plana, azoka espezializatuetan parte hartzea.
- Turismo produktuak sortzea: beste golf zelai batzuekin batera, berariazko profilei bideratuak eta beste jarduera batzuekin batera.
- Itunak eta lurralde garapena: akordioak hurbil dauden hotel eta ostatuekin, erakundeekin lankidetzan aritzeko programa.
- Ekitaldiak sortzea: eragile espezializatu bideratutako ekitaldiak antolatzea.
- Merkataritza kudeaketa: tarifak berrikustea, deskontuak eta sustapenak, beste golf zelai eta operadore espezializatu batzuekin harremanak izateko akordioak.
- Ekitaldi bereziak: jokalaria berriak erakartzeko jarduerak antolatu eta garatzea eta Izki Golf ezagutaraztea.
- *Community management*: lineako marketin programa eta sare sozialak antolatzea eta garatzea.



- ASGOVIN: Golf eta ardo produktu turistikoa sustatzeko elkartearen bazkide eta kudeatzaile zereginetan jarraitzea.

6.4.- Jarduera alternatiboen programarekin jarraitzea

- BTT zentroa garatzea eta sustatzea.
- Eskualdeko turismoa sustatzea.
- *Birding* zentroa garatzea eta sustatzea.

6.5.- Berdintasun printzipioa

Naturgolf SA sozietateak eskainitako jardun, jarduera eta zerbitzu guztietan, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasun printzipioa egongo da, eta emakumeen kirola sustatuko da.

6.6.- Etorkizuneko konpromisoak

Naturgolf SA sozietateak ez du gerorako konpromisorik hartuko aldizkakoak ez diren gastu edo inbertsioengatik.

7.- 2025EKO INBERTSIO ETA HOBEKUNTZA PLANA

Enpresaren aktiboak modernizatzeko beharra antzeman ondoren, eta helburu horrekin, Naturgolf SAk inbertsio plan bat egin zuen, eta horretarako plan horren zenbatekoaren ekarpena behar zuen (345.000 euro).

Plan horren bideragarritasunerako, Arabako Foru Aldundiak, abenduaren 12ko 816/2023 Erabakiaren bidez, Naturgolf SAr 345.000,00 euroko ekarpena egitea onetsi zuen, Inbertsio Plana finantzatzeko.

Plan hori betetzeko, sozietateak egiteke dauden ekintza hauek egingo ditu Izkiko golf zelaian, eta ekintzen % 71 osatuko du:

- Hobekuntzak ureztatze sisteman eta ponpatze gelan.
- Kaleetako soropila berregokitzea
- Bide sarea egokitzea
- Hobekuntzak aparkalekuan eta sarbideetan
- Berokuntza sistema eraginkorra gizarte eremuko eraikinean.